

{ koaderno } Iker Barandiaran

Moden pilotakadak

Badira guztia asmatuta dagoela diotenak. Baita gizakia behin eta berriro harri berdinarekin estropezu egitea gustuko duen animalia bakarra dela esaten dutenak ere. Ohituradun animaliak garela dionik ere bada. Konfort egoeratik ateratzen gaituen guztiak zorabiatzen gaituela. Eta noizbehinka armairuaren barrenean dugun hori berriro ere, beste izen batekin, airatzeko barne premia izan ohi dugula. Izan ere, alor askotan, ugari-tan, lehengora, hastapenekora itzultzen gara behin eta berriro, gure burua engainatu asmoz beste testuinguru bat, beste tonalitate bat edo beste diskurtso bat asmatzen badugu ere.

Musikan, esaterako, emanaldi biluziak ziren 70eko hamarkadan gure artean egiten zirenak; akustikoak eta neurri oso handi batean folkiak. Ahotsa, melodia eta mezua nagusitzen ziren horretan guztian. Gazte zein nagusiek gogoz jarraitu eta gozatzen zituzten emanaldiok eta horien parte sentitzen ziren, horrekin identifikatu, baina bat-batean gazteek horiek alboratu zituzten; energia gehiago eta mezu indartsuagoak behar zituzten. Ordu-tik belaunaldi berri askoren artean estilo arkaiko eta tradizionaltzat hartu izan da folka luzaroan. Gero etorri ziren rocka, punka eta soinu barnerakoi eta erasokorrak, jendearen erreakzioa lortzen zutenak. Eta, aldi berean, mezuak kasu gehienetan zorrotzak ziren, mingarriak, belaunaldi berri horren testuinguru eta nahiak plazaratzen zituztenak. Bidea egin da ordu-tik eta gauza asko, orain esan ohi den bezala, lausotu egin dira.

Korrante horren guztiaren kontra badut lagun bat, nafarra ez bada ere, sustraletako musika izugarri maite duena: rantxerak, folk irlandarra, euskalduna, flamenkoa... Ez ditu sofistikazioak maite, baina txoratzen du lur bati errailetatik lotutako jatorrizko musikak. Arrazoi horregatik adar jotze asko bizi izan ditu eta bizi izaten ditu oraindik, baina konbikzio handiz pentsatzen du horrela.

Eta, hara non, 40 urte pasata, azkenaldi honetan gazte moderno eta sofistikatuenean, hipsterrek eta olatu horri jarraiki eroso dauden askok eta askok egun batean bai eta hurrengoan ere bai folka erribindikatzeko duten autentikoen bailitza. Ze hipokritak garen! *Americana*, *country* eta orain folka bere horretan! Eta ingelesez abestuta izan beharko gainera... Hala, mezuak ez du in-

porta eta ulertzen ez bada hobeto! Izan ere, posea da garrantzitsua: *grunge*-arekin erabilitako alkandorak berreskuratu ditugu, eta, lehen etorkizun-ezta-itxaropenik gabeko gazte nihilista borrokalariak zirenak langido eta erdi suizida bilakatu ziren bezala, oraingo txanda AEBetako estatu bakartienetako bidelapurrena kasik.

Txanponaren beste aldean Oskorri daukagu, tradizio eta eskola bateko lekuko fidel eta langile prestua izan dena. Ikus-entzule fidel baina mugatu batentzat –eta ez espresuki gazte bizardun modernoan gozamenerako-folkaren, gure sustraletako musikaren, tradizioa ikertu, azaleratu eta galbidetik behin eta berriro atera duena, alajaina. Orain, desegin berri –askotan gertatu ohi den moduan– emango dio jendeak izan duen garrantzia. Baina ja beranduegi da!

Musikak izan duen bilakaerari jarraituta, lan luzea izan zen Euskal Herrian –beste leku eta alor askotan bezala– kontzertuak ondo egitea lortzeko: azpiegitura txukunak prestatzea, egituratzea eta antolatzea, hain

Txanponaren beste aldean Oskorri dago, tradizio eta eskola bateko lekuko fidel eta langilea. Folkaren, gure sustraletako musikaren, tradizioa ikertu, azaleratu eta galbidetik behin eta berriro atera duena

zuzen ere. Gogora dezagun aurreneko emanaldietako asko eta asko –folkiak, rockeroak zein punkak–, besterik ezean, pilotalekuan egin ohi zirela. Eta pilotalekuen sonoritatea txarrena izateagatik agian horregatik izango dira gure artean punta-puntako soinu teknikariak, baldintza txarrenetan taldeak behin eta berriro salbatzen ahalegindu zirenak, hain zuzen ere. Baina zeinek daki, baliteke pilotalekuan berriro kontzertuak egiteko ohiturak indarra hartzea. Hain xelebreak dira gure buruari ezartzen dizkiogun modak! A, ez, barkatu, nagusitzen ari dena jende oso gutxiko kontzertuak dira: batzuetan halabeharrez, eskaintza eskaera baino handiagoa delako eta konfort egoeratik ez irtearren; eta beste batzuetan lokal oso txiki-txiki oso jende gutxi-entzat zuzendutako formatu txiki-kontzertuak ere modan daudelako. •